



Aldez aurreko oharra:

- **Baloratze modua:** erantzun zuzenak +1 punturekin baloratuko dira, erantzun okerrak -0,33 punturekin eta erantzun gabeko galderak ez dira baloratuko (ez positiboki ez negatiboki).
- **55 galderei erantzun behar zaie, erreserbakoak barne.**

1	Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen xedea sektore publikoan egiten diren kontratuak arautzea da, eta horren bidez bermatu nahi da, kontratazioa printzipio hauen arabera gauzatuko dela:
A	Lizitazioetan parte hartze mugatuaren printzipioa, prozeduren gardentasunaren eta publikotasunaren printzipioa eta lehiakideen arteko diskriminaziorik ezaren eta hierarkiaren printzipioa.
B	Lizitazioetan parte hartze askatasunaren printzipioa, prozeduren gardentasunaren eta publikotasunaren printzipioa eta lehiakideen arteko diskriminaziorik ezaren eta hierarkiaren printzipioa.
C	Lizitazioetan parte hartze mugatuaren printzipioa, prozeduren gardentasunaren eta publikotasunaren printzipioa eta lehiakideen arteko diskriminaziorik ezaren eta tratu berdintasunaren printzipioa.
D	Lizitazioetan parte hartzeko askatasunaren printzipioa, prozeduren gardentasunaren eta publikotasunaren printzipioa eta lehiakideen arteko diskriminaziorik ezaren eta tratu berdintasunaren printzipioa.

2	Sektore publikoko kontratutzat joko dira, eta, beraz, Lege honen mendean egongo dira, bertan ezarritako moduan eta bertan ezarritako baldintzen arabera:
A	Lege honen 3. artikuluan adierazitako erakundeek egindako kostu bidezkoak ez diren kontratuak, izaera juridiko publikokoak.
B	Lege honen 3. artikuluan adierazitako erakundeek kostu bidez egindako kontratuak, izaera juridiko publikokoak.
C	Lege honen 3. artikuluan adierazitako erakundeek egindako kostu bidezkoak ez diren kontratuak, kontratuaren izaera juridikoa edozein dela ere.
D	Lege honen 3. artikuluan adierazitako erakundeek kostu bidez egindako kontratuak, kontratuaren izaera juridikoa edozein dela ere.

3	Administrazio Publikoekin egindako kontratuetan eman beharreko behin betiko bermeak honako modu hauetako batean eratu ahalko dira:
A	Eskudirutan edo baloreetan, zeinak nolana ere zor publikoarenak izango baitira.
B	Abalaren bidez.
C	Kauzio aseguruia kontratatuta.
D	Guztiak zuzenak dira.



4	Kontratazio prozeduran:
A	Beti eskatu ahal izango da behin-behineko bermea.
B	Ez da beharrezkoa izango behin-behineko bermea eskatzea.
C	Ez da aukerarik izango behin-behineko bermea eskatzeko, salbu eta aparteko kasuetan kontratazio organoak, interes publikoko arrazoiak tarteko, beharrezkotzat jotzen duenean eta justifikatzeko beharrik izan gabe.
D	Ez da aukerarik izango behin-behineko bermea eskatzeko, salbu eta aparteko kasuetan kontratazio organoak, interes publikoko arrazoiak tarteko, beharrezkotzat jotzen duenean eta espedientean arrazoiz justifikatzen duenean.

5	Aurrez bete beharreko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko agiriak aurkezteari dagokionez, prozedura irekiaren bidez egindako proposamenekin batera, erantzukizunpeko deklarazioa aurkeztu beharko da, eta hartan honako hau adieraziko du lizitatzailleak (adierazi zein den okerra):
A	Sozietatea behar bezala eratuta dagoela.
B	Bere xede sozialaren arabera ezin dela lizitaziora aurkeztu.
C	Behar den sailkapena duela, hala badagokio, edo eskatzen diren kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionaleko baldintzak betetzen dituela.
D	Ez duela ez berez, ez hedapenez, kontratatzeke debekurik.

6	Proiektuen lehiaketei dagokienez, proiektuen lehiaketa batean parte hartzeko kualifikazio profesional jakin bat eskatzen denean:
A	Epaimahaia osatzen duten kideen bi herenek gutxienez kualifikazio hori eduki beharko dute, edo beste kualifikazio baliokide bat.
B	Epaimahaia osatzen duten kideen hiru bostenek gutxienez kualifikazio hori eduki beharko dute, edo beste kualifikazio baliokide bat.
C	Epaimahaia osatzen duten kideen bi bostenek gutxienez kualifikazio hori eduki beharko dute, edo beste kualifikazio baliokide bat.
D	Epaimahaia osatzen duten kideen heren batek gutxienez kualifikazio hori eduki beharko dute, edo beste kualifikazio baliokide bat.

7	Zerbitzu kontratua obra proiektu bat osorik egiteko baldin bada:
A	Kontratistari erantzukizuna eskatuko zaio proiektuaren akatsengatik edo okerrenengatik.
B	Kontratistari ez zaio erantzukizunik eskatuko proiektuaren akatsengatik edo okerrenengatik.
C	Administrazioari erantzukizuna eskatuko zaio proiektuaren akatsengatik edo okerrenengatik.
D	Kontratazio organoari erantzukizuna eskatuko zaio proiektuaren akatsengatik edo okerrenengatik.



8	Administrazio Publikoen kategoriakoak ez diren botere adjudikatzailleekin egindako kontratuen ondoreak eta ezeztatzea honako arau hauek gidatuko dituzte:
A	Arau publikoek.
B	Arau pribatuek.
C	Arau publikoek eta pribatuek.
D	Bat bera ere ez da zuzena.

9	Kontratatik eskubidea izango du:
A	Prestazioa emateagatik hitzartutako prezioa jasotzeko, soilik kontratuan ezarritako baldintzetan.
B	Prestazioa emateagatik hitzartutako prezioa jasotzeko edo espezietan kobratzeko, Lege honetan eta kontratuan ezarritako baldintzetan.
C	Prestazioa emateagatik hitzartutako prezioa jasotzeko, Lege honetan eta kontratuan ezarritako baldintzetan.
D	Prestazioa emateagatik hitzartutako prezioa jasotzeko edo espezietan kobratzeko, soilik kontratuan ezarritako baldintzetan.

10	Prezioaren ordainketa:
A	Osorik egin beharko da.
B	Osorik egin ahalko da, edo zatika, konturako ordainketen bidez.
C	Osorik egin ahalko da, edo zatika, hitzartutako epemuga bakoitzean ordainduz.
D	Osorik egin ahalko da, edo zatika, konturako ordainketen bidez edo, segidako traktuko kontratuen kasuan, hitzartutako epemuga bakoitzean ordainduz.

11	Obra ziurtagiriak onartu ondoren, edo ondasunak nahiz zerbitzuak kontratuan xedatutako moduan entregatu eta eman direla egiaztatzen duten agiriak eman ondoren, Administrazioak prezioa ordaindu beharko du:
A	Hurrengo 10 egunetan.
B	Hurrengo 15 egunetan.
C	Hurrengo 20 egunetan.
D	Hurrengo 30 egunetan.

12	Kontratatik, hala badagokio, etenda utz dezake kontratuaren egikaritzea, ordainketa:
A	2 hilabetetik gora berandutu bada.
B	3 hilabetetik gora berandutu bada.
C	4 hilabetetik gora berandutu bada.
D	6 hilabetetik gora berandutu bada.



13	Toki erakundearen aurrekontua egiteko, haiei atxikitako erakunde autonomoek gastuen eta diru sarreraren aurreikuspenak bidali beharko dituzte:
A	Irailaren 1a baino lehen.
B	Irailaren 15a baino lehen.
C	Urriaren 10a baino lehen.
D	Urriaren 31 baino lehen.

14	Behin-behineko onespena eman eta aurrekontua gutxienez hamabost eguneko epean jendaurrean egon ondoren, erreklamaziorik badago, haiek ebatziko ditu:
A	Osoko Bilkurak hilabete bateko epean.
B	Alkateak hilabete bateko epean.
C	Osoko Bilkurak hamabost eguneko epean.
D	Alkateak hamabost eguneko epean.

15	Toki erakundearen kontabilitatea eramango da:
A	Partida bakarreko metodoaren bidez
B	Partida sinpleko metodoaren bidez.
C	Kontabilitate partidaren metodoaren bidez.
D	Partida bikoitzeko metodoaren bidez.

16	Lehen mailako kontuak honela kodetzen dira:
A	Hiru digiturekin.
B	Lau digiturekin.
C	Bost digiturekin.
D	Digitu batekin.

17	EZ dagokio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:
A	Toki erakundearen kontu orokorra onartzea.
B	Toki erakundearen kontu orokorra osatzea.
C	Kontu hartzaileak edo kontabilitate eginkizuna esleituta duen toki erakundearen organoak txostena egin ondoren, toki erakundearen kontabilitatearen kudeaketan jarraitu beharreko administrazio prozedurak erregulatzen dituzten arauak onartzea.
D	Aurreko guztia dagokio.



18	Langileen Estatutua Legeak araututako eremutik kanpo uzten dira hauek (adierazi zein den okerra):
A	Funtzionario publikoen zerbitzu harremana, dagozkion lege eta erregelamendu mailako arauz arautuko baita.
B	Nahitaezko prestazio pertsonalak.
C	Sozietateen itxura juridikoa daukaten enpresetan administrazioko organoetako kide kargua edo kontseilari kargua betetzeak batzuetan dakarren jardura.
D	Adiskidetasunez, borondate onez edo auzo harreman onez egindako lanak.
19	Langileak arakatu ahal izango dira:
A	Bakarrik haien armairuak eta gauzak, enpresaren ondarea eta enpresako beste langileen ondarea babesteko ezinbestekoak diren kasuetan, lantokian bertan eta laneko orduetan.
B	Bakarrik haien gauzak, enpresaren ondarea eta enpresako beste langileen ondarea babesteko ezinbestekoak diren kasuetan, lantokian bertan eta laneko orduetan.
C	Haien gauza guztiak, enpresaren ondarea eta enpresako beste langileen ondarea babesteko ezinbestekoak diren kasuetan, lantokian bertan eta laneko orduetan.
D	Inoiz ez.
20	Egiten den urrutiko lana erregularra dela ulertuko da:
A	3 hilabeteko erreferentzia aldi, lanaldiaren % 30 gutxienez edo lan kontratuaren iraupenaren araberako ehuneko baliokidea.
B	6 hilabeteko erreferentzia aldi, lanaldiaren % 30 gutxienez edo lan kontratuaren iraupenaren araberako ehuneko baliokidea.
C	6 hilabeteko erreferentzia aldi, lanaldiaren % 40 gutxienez edo lan kontratuaren iraupenaren araberako ehuneko baliokidea.
D	3 hilabeteko erreferentzia aldi, lanaldiaren % 40 gutxienez edo lan kontratuaren iraupenaren araberako ehuneko baliokidea.
21	Lege iruzurrez itundutako aldi baterako kontratuak:
A	Denbora mugarik gabeko kontratutzat hartuko dira.
B	Deusezak izango dira.
C	Aldi baterako kontratutzat hartuko dira, baldin eta kontratuaren akatsak zuzentzen badira egin denetik hilabeteko epean.
D	Bat bera ere ez da zuzena.
22	Lanaldi bat amaitzen denetik eta hurrengoa hasten denera arte, gutxienez:
A	6 ordu igaro behar dira.
B	8 ordu igaro behar dira.
C	10 ordu igaro behar dira.
D	12 ordu igaro behar dira.



23	Enplegatu publikoek greba egiteko eskubidea erabiliko dute:
A	Komunitatearen funtsezko zerbitzuak mantenduko direla bermatuta.
B	Nahitaez, greba orokorra denean.
C	Kasu bakoitzean aplikatu beharreko legeriaren arabera.
D	Inor ezin da lan egitera behartu.

24	Enplegatu publikoek:
A	Ez dute pertsona fisiko nahiz erakunde publikoengandik mesede traturik onartuko, ez eta arrazoirik gabeko pribilegioa edo abantaila dakarren egoerarik ere.
B	Ez dute parte hartuko interes pertsonala duten gaietan, ez eta beste lanpostu publiko batekin interes gatazkak sortzeko arriskua ekar dezakeen jarduera pribatu edo interes orotan ere.
C	Eraginkortasun, ekonomia eta efizientzia printzipioen arabera jardungo dute, eta interes orokorraren alde joka dadin eta erakundearen helburuak bete daitezzen zainduko dute.
D	Arretaz beteko dituzte dagozkien edo agintzen zaizkien zereginak eta, hala badagokio, epearen barruan ebatziko dituzte beren eskumenekoak ez diren prozedurak edo espedienteak.

25	Toki erakundeen aurrekontu orokorrak honako hauek biltzen dituzten adierazpen zifratu, bateratu eta sistematikoa dira:
A	Erakundeak eta haren erakunde autonomoek gehienez aitor ditzaketen betebeharrak eta dagokion ekitaldian likidatzea aurreikusten dituzten eskubideak.
B	Kapital sozial osoa dagokion toki erakundearena duten merkataritza sozietateen diru sarreren eta gastuen aurreikuspenak.
C	Administrazio zentralak toki erakunde bakoitzari dagozkion eskubide likidagarrien inguruan emandako aurrekontuak.
D	A eta B zuzenak dira.

26	Ekitaldi ekonomikoa hastean dagokion aurrekontua indarrean jarri ez bada:
A	Aurrekoa automatikoki luzatutzat joko da bere hasierako kredituen guttizko mugaraino, gehienez ere.
B	Aurrekoa automatikoki luzatutzat joko da bere hasierako kredituen guttizko mugaraino, % 15 gehituta.
C	Aurrekoa automatikoki luzatutzat joko da bere hasierako kredituen guttizko mugaraino, % 10 gehituta.
D	Aurrekontua nahitaez onartu behar da.



27	Ondarekoak diren ondasunak eta eskubideak besterentzetik edo kargatzetik datozen diru sarrerak:
A	Ezin izango dira gastu arrunta finantzatzeko erabili, salbu eta eraikigarriak ez diren bide publikoetako soberako lursailak badira edo udal edo probintzia mailako zerbitzuetan erabiltzekoak ez diren efektuak badira.
B	Ezin izango dira gastu arrunta finantzatzeko erabili, salbu eta bide publikorako beharrezkoak diren lursailak badira, eraikigarriak izan edo ez, edo udal edo autonomia mailako zerbitzuetan erabiltzekoak diren edo ez diren efektuak badira.
C	Gastu arrunta finantzatzeko erabili ahal izango dira, betiere.
D	Guztiak zuzenak dira.
28	Zerga propioak arautzen dituzten ordenantza fiskalek honako hauek jasoko dituzte gutxienez:
A	Zergapeko egitatea, subjektu pasiboa, erantzuleak, salbuespenak, murriztapenak eta hobariak, zerga oinarria eta likidagarria, karga tasa edo zerga kuota, zergaldia eta sortzapena.
B	Aitorpen eta sarrera araubideak.
C	Noiz onartu ziren eta noiz hasi ziren aplikatzen.
D	Aurreko aukera guztiak zuzenak dira.
29	Prezio publikoak ordaindu beharko dituzte:
A	Prezio publikoak ordaindu behar diren zerbitzu eta jarduera horien onuradun direnek.
B	Toki erakundearen erroldatuta dauden herritar guztiek, nazionalitatea edozein dela ere.
C	A eta B zuzenak dira.
D	Indarrean dagoen urtean zerbitzu horien onuradun ez izan arren, aurreko bi urteetan horien onuradun izateko aukera izan zutenek.
30	Toki korporazio bakoitzeko plantilla urtero onartuko da eta honako printzipio hauek bete beharko ditu:
A	Arrazionaltasuna, ekonomia eta eraginkortasuna.
B	Arrazionaltasuna, ekonomia eta berdintasuna.
C	Arrazionaltasuna, eraginkortasuna eta berdintasuna.
D	Ekonomia, eraginkortasuna eta berdintasuna.
31	Toki korporazioek publikoki eratuko dute beren lan eskaintza, honako hauetan finkatutako irizpideei jarraiki:
A	Estatuko oinarrizko araudian.
B	Autonomia Erkidegoko araudian.
C	Probintziako araudian.
D	Beren araudian.



32	Dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak argitaratu egin beharko dira:
A	Aldi berean, BOEn eta dagokion aldizkari ofizialean.
B	BOEn edo dagokion aldizkari ofizialean.
C	BOEn eta Dirulaguntzen Datu base Nazionalean.
D	BOEn bakarrik.

33	Erantzun hauetako zein dator bat dirulaguntza emateko bete behar diren baldintzekin?:
A	Administrazio organo emailearen eskumena.
B	Dirulaguntza ematearen ondoriozko betebeharrak ekonomikoak aurre egiteko kreditu egokia eta nahikoa izatea.
C	Eduki ekonomikoa duten administrazio egintzak aldeztatik fiskalizatzea.
D	Aurreko erantzun guztiak bat datoz dirulaguntza emateko bete behar diren baldintzekin.

34	Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean jasotakoaren arabera, onuradun izan al daitezke nortasun juridikorik ez duten pertsona fisikoen edo juridikoen taldeak?
A	Inola ere ez izatera pribatuko pertsona juridikoentzat.
B	Bai, oinarri arautzaileetan berariaz aurreikusi denean.
C	Bai, hala badagokio, dirulaguntzaren deialdian hala aurreikusi denean.
D	Erantzun horietako bakar bat ere ez da zuzena.

35	Dirulaguntza baten onuradun izan al daitezke honako hauek?
A	Borondatezko konkurtsoaren deklarazioa eskatu dutenak.
B	Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak egunean ez dituztenak.
C	Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez dituztenak.
D	Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira, baldin eta, dirulaguntzaren izaera dela eta, araudi erregulatzaileraren arabera onuradun izaera lortu ezin izatea salbuesten bada.

36	Dirulaguntzaren finantza kontrola honako hauengana zabaldu ahal izango da:
A	Onuradunak elkartuta dauden pertsona fisiko eta juridikoengana.
B	Onuradunak elkartuta dauden pertsona fisiko eta juridikoengana, odol ahaidetasuneko edo ezkontza ahaidetasuneko lehen mailara arte.
C	Helburuak lortzeko, jarduerak egiteko, proiektuak gauzatzeko edo portaerak hartzeko interesa izan dezakeen beste edozein pertsonarengana.
D	A eta C zuzenak dira.



37	Auditatutako erakundeek honako hauek emateko obligazioa dute:
A	Kontu auditoretza lanak egiteko behar den informazio guztia.
B	Kudeaketa txostena egiteko eskatutako informazioa bakarrik.
C	Finantza eta kontabilitate egoerak islatzeko gutxieneko informazioa.
D	Kontabilitate informazioa bakarrik.

38	Galdu-irabazien kontuak ekitaldiko emaitza jasotzen du, honako hauek osatua:
A	Ekitaldiko diru sarrerek eta gastuek, erregistratzeko eta baloratzeko arauetan aurreikusitakoaren arabera zuzenean ondare garbiari egotzi behar zaizkionean izan ezik.
B	Ekitaldiko diru sarrerek eta gastuek, betiere ondare garbiari zuzenean egotzi behar bazaizkio, erregistratzeko eta baloratzeko arauetan aurreikusitakoaren arabera.
C	Ekitaldiko diru sarrerek eta gastuek, erregistratzeko eta baloratzeko arauetan aurreikusitakoaren arabera zuzenean ondare garbiari egozte galarazten denean izan ezik.
D	Aurreko erantzun bat bera ere ez da zuzena.

39	Kontabilitate printzipioen artean gatazkak badaude, lehentasuna du:
A	Zuhurtasun baloratiboaren printzipioak.
B	Garrantzi erlatiboaren printzipioak.
C	Sortzapen printzipioak.
D	Urteko kontuek enpresaren ondarearen, finantza egoeraren eta emaitzen irudi zehatza azal dezaten egokiena denak.

40	Urteko kontuen elementu hauek erregistratzen dira balantzean:
A	Aktiboak, pasiboak, ondare garbia, diru sarrerak eta gastuak.
B	Aktiboak eta pasiboak.
C	Aktiboak, pasiboak, diru sarrerak eta gastuak.
D	Aurreko erantzun bat bera ere ez da zuzena.

41	Oro har onartutako kontabilitateko printzipio eta arautzat hartuko dira honako hauetan ezarritakoak:
A	Merkataritza Kodean eta gainerako legerian.
B	Kontabilitate Plan Orokorrean eta haren egokitzapen sektorialetan.
C	Kontabilitate eta Kontu Auditoretzako Institutuak kontabilitate arloan ezartzen dituen garapen arauetan.
D	Aurreko guztietan.



42 Aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren xedea da:

A	Sektore publikoaren aurrekontu politikak bete beharko dituen printzipio gidariak ezartzea, botere publiko guztiak lotzen dituztenak.
B	Estatuko botere publikoek oinarri izan behar dituzten printzipioak ezartzea, sektore publikoko aurrekontu politika haietara egokitzen saiatzeko.
C	Sektore publikoaren eta pribatuaren aurrekontu politikak bete beharko dituen printzipio gidariak ezartzea, botere publiko guztiak lotzen dituztenak.
D	Estatuko botere publikoek oinarri izan behar dituzten printzipioak ezartzea, sektore publikoko eta pribatuko aurrekontu politika haietara egokitzen saiatzeko.

43 Aktibo baten zenbateko berreskuragarria honako hau da:

A	Arrazoizko balioaren (salmenta kostuak kenduta) eta erabilera balioaren arteko handiena.
B	Arrazoizko balioaren (salmenta kostuak kenduta) eta erabilera balioaren arteko txikiena.
C	Benetako balioaren (salmenta kostuak kenduta) eta erabilera balioaren arteko handiena.
D	Benetako balioaren (salmenta kostuak kenduta) eta erabilera balioaren arteko txikiena.

44 Apirilaren 13ko EHA/1037/2010 Aginduaren bidez onartutako Kontabilitate Publikoko Plan Orokorraren arabera, finantza aktiboak, balorazioaren ondorioetarako, honako kategoria hauetako batean sailkatzen dira hasieran:

A	Kobratu beharreko kredituak eta partidak, mugaegunera arte mantendutako inbertsioak, emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko finantza aktiboak, taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen ondarean egindako inbertsioak, finantza aktibo salgarriak.
B	Kobratu beharreko kredituak eta partidak, mugaegunera arte mantendutako inbertsioak, emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko finantza aktiboak, taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen ondarean egindako inbertsioak, saltzeko prest ez dauden finantza aktiboak.
C	Zorrak eta partida zordunak, mugaegunera arte mantendutako inbertsioak, emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko finantza aktiboak, taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen ondarean egindako inbertsioak, saltzeko prest ez dauden finantza aktiboak.
D	Aurreko erantzun bat bera ere ez da zuzena.



45	Kontabilitate Publikoko Plan Orokorraren arabera, jarraian adierazten diren ondare izaerako kontabilitate printzipioak aplikatuz garatuko da erakundearen kontabilitatea:
A	Kudeaketa jarraitua, sortzapena, uniformetasuna, zuhurtzia, konpentsaziorik eza eta garrantzi erlatiboa.
B	Kudeaketa jarraitua, sortzapena, uniformetasuna, zuhurtzia, konpentsazioa eta garrantzi erlatiboa.
C	Kudeaketa jarraitua, sortzapena, uniformetasuna, zuhurtzia, sortzapena eta garrantzi erlatiboa.
D	Kudeaketa jarraitua, sortzapena, uniformetasuna, ekitatea, sortzapena eta garrantzi erlatiboa.

46	Aurrekontuaren egikaritzearekin zerikusia duten elementu hauek islatzen dira aurrekontuaren likidazioaren egoeran:
A	Kobrantsak eta ordainketak.
B	Aurrekontuko gastuak eta aurrekontuko diru sarrerak.
C	Aktiboak eta pasiboak.
D	Aurreko erantzun bat bera ere ez da zuzena.

47	Aurrekontuei buruzko azaroaren 6ko 47/2003 Lege Orokorraren (aurrerantzean ALO) 26. artikuluan jasota daude aurrekontu programazioaren printzipioak eta arauak. Bertan xedatutakoaren arabera, printzipio hauetako zeinek arautuko du aurrekontu programazioa?
A	Aurrekontu egonkortasunaren eta finantza jasangarritasunaren printzipioak
B	Urte anitzekotasun printzipioak.
C	Eraginkortasun printzipioak baliabide publikoak esleitzean eta erabiltzean.
D	Aurreko guztiek eta, gainera, erantzukizun eta leialtasun instituzionalaren printzipioek.

48	Aurrekontuei buruzko Lege Orokorrean xedaturikoa kontuan hartuta, nori dagokio aurrekontu egoerak egitea?
A	Ministerio bakoitzari, eta haren mende dauden zentro kudeatzaile guztien programak bilduko ditu eta ministroak onartuko ditu.
B	Ogasun Ministerioari, eta hark Ministroen Kontseiluari emango dio horren berri.
C	Ministroen Kontseiluari, Aurrekontuen Legea onartu aurretik.
D	Aurreko erantzun bat bera ere ez da zuzena.



49	Ondoko baieztapen hauetatik, zein dator bat Aurrekontuei buruzko Lege Orokorraren 32. artikuluan Estatuko Aurrekontu Orokorrei emandako definizioarekin?
A	Estatuko Aurrekontu Orokorrek sektore publikoa osatzen duten organo eta erakunde bakoitzak ekitaldian zehar likidatu beharreko eskubideen eta aitortu beharreko betebeharren adierazpen zifratua dira.
B	Estatuko Aurrekontu Orokorrek estatuko sektore publikoa osatzen duten organo eta erakunde bakoitzak ekitaldian zehar likidatu beharreko eskubideen eta aitortu beharreko betebeharren adierazpen zifratua, bateratua eta sistematikoa dira.
C	Estatuko Aurrekontu Orokorrek estatuko sektore publikoa osatzen duten organo eta erakunde bakoitzak ekitaldian zehar gauzatu beharreko eskubideak eta betebeharrak dira.
D	Aurreko erantzun bat bera ere ez da zuzena.

50	Prestakuntzari dagokionez, langileak honako eskubide hauek izango ditu:
A	Lanpostuan egindako aldaketetara egokitze behar den prestakuntza izateko.
B	Prestakuntza enpresaren kontura izango da, prestakuntzarako kredituak lortzeko aukerarik gabe.
C	Prestakuntzan emandako denbora ez da benetako lan denboratzat hartuko.
D	Guztiak zuzenak dira.

ERRESERBAKO GALDERAK

51	Lege honen ondorioetarako, sektore publikoaren barnean sartzen dira fundazio publikoak. Lege honen ondorioetarako, honako baldintza hauetakoren bat betetzen dutenak joko dira fundazio publikotzat:
A	Hasierako eraketarako ekarpenean nagusi izatea, zuzenean edo zeharka, sektore publikoan integratutako erakunde batek edo batzuek egindakoa, eta eratu eta gero ezin izango dute halako ekarpena jaso.
B	Fundazioaren ondarearen % 60 baino gehiago sektore publikoko subjektuek ekarritako edo lagatako ondasunek edo eskubideek osatzea modu iraunkorrean.
C	Fundazioaren patronatuan boto eskubideen gehiengoa egokitzea sektore publikoko ordezkariari.
D	Guztiak zuzenak dira.

52	Lizitatzailleen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialei dagokienez, interesdunek:
A	Ezin izango dute eskatu eurei dagozkien inskripzioak ezerezteko, nahitaez inskribatu beharreko kasu eta inguruabarretan izan ezik.
B	Edozein unetan eska dezakete eurei dagozkien inskripzioak ezerezteko, nahitaez inskribatu beharreko kasu eta inguruabarretan izan ezik.
C	Edozein unetan eska dezakete eurei dagozkien inskripzioak ezerezteko.
D	Ezin izango dute inola ere eskatu eurei dagozkien inskripzioak ezerezteko.



53	Kreditu gehigarri bat baimentzeko, beharrezkoa da... (adierazi zein den erantzun okerra)
A	Gastua hurrengo ekitaldira arte atzeratu ahal izatea.
B	Kreditua ezin handitu izatea.
C	Kreditua nahikoa ez izatea.
D	B eta C zuzenak dira.

54	Udalek, Toki Ogasunei buruzko Legearen arabera, honako hauek eskatuko dituzte:
A	Egintza juridiko dokumentatuen, ondasun higiezinaren eta trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga.
B	Ondasun higiezinaren, jarduera ekonomikoen eta trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga.
C	Ondasun higiezinaren, jarduera ekonomikoen edo egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga.
D	Aurreko bakar bat ere ez.

55	Lan kontratua:
A	Idatziz egingo da beti.
B	Idatziz edo hitzez egin ahal izango da.
C	Hitzez egingo da beti, obra edo zerbitzu jakin bat denean.
D	Bat bera ere ez da zuzena.